

## Microsoft Cloud hitzarmena

Microsoft Cloud zerbitzuaren hitzarmen hau zuk ordezkatzeko duzun erakundearen edo, Harpidetzaren erosketari edo berriztapenari loturiko erakunde bat izendatzen ez baduzu, zure ("Bezeroa") eta Microsoft Ireland Operations Limited ("Microsoft") erakundearen artekoa da. Hitzarmena hurrengo hauek osatzen dute: behean agertzen diren zehaztapenak eta baldintzak, erabilera-eskubideak eta dokumentazioan aipatutako dokumentu guztiak (batera hartuta, "hitzarmena" izango da). Honek indarrean sartuko da Saltzaileak Hitzarmena hornitzen dizunean. Zehaztapen nagusiak 10. atalean definitzen dira.

### 1. **Bermeak, eskubideak eta baldintzak.**

Hitzarmen honetan aipatzen diren eskubide guztiak ez dira eskusiboak, ezin dira eskuordetu eta aplikagarriak izango dira baldin eta Bezeroak edo bere Afiliatuek ez badute urratzen hitzarmenaren klausulak.

- a. **Softwarea.** Bi alderdiek hitzarmena onartu ostean, Microsoft-ek Bezeroari bermatuko dizkio Softwarea erabilera-eskubide murriztuak, eskatutako kantitateen arabera.
  - (i) **Erabilera-eskubideak.** Erabilera-eskubideak aplikatuko dira Bezeroak Softwarea eskatzen duenean; eskubide horiek Softwarearen azken bertsioari eragingo diote. Etorkizuneko bertsioen eta Software berrien kasuan, erabilera-eskubideak aplikatuko dira bertsio horiek eta Softwarea argitaratzen diren unean. Microsoft-ek aldaketarik egiten badu bertsio zehatz baten erabilera-eskubideetan, aldaketa horiek ez dira aplikatuko Bezeroak onartzen ez baditu.
  - (ii) **Aldi baterako eta betirako lizentziak.** Harpidetza batean oinarritutako lizentziak aldi baterakoak dira. Gainerako lizentziak betirako izango dira Softwarearen erabilera-eskubideak osorik ordaintzen badira.
- b. **Lineako zerbitzuak.** Bezeroak Lineako zerbitzuak erabili ahalko ditu hitzarmen honetan adostutakoaren arabera.
  - (i) **Lineako zerbitzuen baldintzak.** Lineako zerbitzuen baldintzak indarrean sartzen dira Bezeroak harpidetza eskatzean edo berritzean; baldintza horiek aplikatuko dira harpidetzaren epealdira. Kontsumoaren arabera fakturatzeko diren Lineako zerbitzuen kasuan, zerbitzuen uneko baldintzak erabilerari aplikatuko dira fakturazio-epealdia indarrean dagoen bitartean.
  - (ii) **Etetea.** Microsoft-ek Lineako zerbitzuak eten ditzake Bezeroak Erabilera egokiaren politika urratzen badu edo ez badu erantzunik ematen legeak urratzen badira. Microsoft-ek Lineako zerbitzuak etengo dituela jakinaraziko dio Bezeroari arrazoizko epealdi batean.
  - (iii) **Azken erabiltzaileak.** Bezeroak Azken erabiltzaileen sarbidea kontrolatzen du eta horiek Produktua erabiltzean egiten dutenaren erantzulea izango da hitzarmen honetan adostutakoaren arabera. Adibidez, Bezeroa ziurtatuko da Azken erabiltzaileek Erabilera egokiaren politika betetzen dutela.
  - (iv) **Bezeroen datuak.** Bezeroa da Bezero-datu guztien edukiaren erantzule bakarra. Microsoft-ek Lineako zerbitzuak hornitzeko behar dituen Bezero-datuen eskubide guztiak babesteko eta mantenduko ditu Bezeroak, hirugarrenen eskubideak urratu gabe edo Microsoft-i Bezeroganako edo hirugarrenenganako beste inolako betebeharririk ekarri gabe. Bezero-datuei edo Produktuaren erabilerari dagokionez, Microsoft-ek ez du inolako betebeharririk bere gain hartuko, hitzarmen honetako baldintzek edo lege aplikagarriak onartzen duten kasuetan salbu.

- (v) **Zure kontuen erantzukizuna.** Lineako zerbitzuen erabilerarekin erlazionatutako eta publikoak ez diren autentifikazio-kredentzialen konfidentzialtasuna babesteko erantzule bakarra da Bezeroa. Bezeroa berehala jarri behar da harremanetan bezeroentzako laguntza-zerbitzuarekin, bere kontuen edo autentifikazio-kredentzialen erabilera desegokirik badago edo Lineako zerbitzuekin erlazionatutako segurtasun-gertakaririk badago.
- c. **Lizentziak transferitzea.** Ezin da transferitu lizentziarik, salbu eta Bezeroak guztiz ordainduta dauden betiereko lizentziak honako hauetako bati transferitzen badizkio: (1) Afiliatu bati edo (2) hardware-transferentziarekin soilik erlazionatutako hirugarren bati edo lizentziak esleitu zaizkien langileei, esleipena hauetako baten parte gisa egin bada: (a) Afiliatu baten desinbertsio osoa edo parte bat, edo (b) Bezeroak edo Afiliatu batek parte hartutako bat-egite komertziala. Transferentzia horiek egiten badira, Bezeroak eta bere Afiliatuek lizentzian emandako Produktua eta bere kopiak desinstalatu behar dituzte gehiago ez erabiltzeko. Banaketa-eskubidea irauungi bada eta lege aplikagarriak onartzen duen heinean, Hitzarmen honetako ezerk ez du debekatzen Softwarea transferitzea.
- d. **Eskubide-erreserbatzea.** Copyright-ak ez ezik, jabetza intelektualari buruzko beste legeek eta nazioarteko akordioek babesten dituzte Produktuak. Microsoft-ek hitzarmen honetan berariaz eman ez diren eskubide guztiak erreserbatzen ditu. Ez dira eskubiderik bermatuko (edo modu inplizitu batean emango) ezezpengatik edo debekuegatik. Softwarea atzitzeko edo erabiltzeko eskubideek ez diote inolako eskubiderik ematen Bezeroari Microsoft-eko patenteak edo gailuko Microsoft-eko jabetza intelektualala softwarean edo gainerako gailuetan inplementatzeko.
- e. **Mugak.** Bezeroak Produktua erabili ahal du hitzarmen honetan adostutakoaren arabera soilik. Bezeroak ezin ditu honako ekintza hauek gauzatu (eta ez du horretarako lizentziarik): (1) Produktua edo honen konponketak alderantzikatu, deskonpilatu edo desmuntatu edo hori egiten saiatu; (2) Microsoft-enak ez diren softwarea edo teknologiak instalatu edo erabili Microsoft-en jabetza intelektualarekiko eta teknologiarekiko betebeharrak beste lizentzia-baldintzen arabera arautzen badira; edo (3) Produktuaren edo konponketen muga teknikoak edo Produktuaren dokumentazioan adierazitako mugak saihestu. Bezeroak ezingo du Lineako zerbitzuen erabilera neurtzen duen fakturazio-mekanismoa desaktibatu, faltsutu edo saihesten ahalegindu. Hitzarmen edo Produktuaren dokumentazio honetan onartzen duten kasuetan salbu, Bezeroak ezingo du Produktua edo haren inolako zatirik banatu, azpilizentzian eman, alokatu, norbaiti utzi, berriro saldu, transferitu edo erabili hirugarrenei ostalari-zerbitzuak hornitzeko.
- f. **Aurrebista-bertsioak.** Microsoft-ek Aurrebistak erabilgarri jarri ahal du. **Aurrebistak “bere horretan”, “falta guztiekin” eta “erabilgarri dagoen gisa” hornitzen dira eta SLA kontratuetatik eta hitzarmen honetako berme mugatuetatik kanpo geratzen dira.** Baliteke Aurrebistak bezeroen laguntza-zerbitzuak ez estaltzea. Baliteke Aurrebistak segurtasun-, eskakizun- eta pribatutasun-konpromiso murriztuak edo desberdinak izatea, Lineako zerbitzuetako baldintzetan eta Aurrebistarekin batera datorren edozein ohar gehigarrietan azaltzen denez. Microsoft-ek Aurrebistak nahi duenean alda ditzake eta jakinarazpenik gabe. Halaber, Aurrebista bat erabilgarritasun orokorrean ez argitaratzea aukera dezake Microsoft-ek.
- g. **Produktuaren eskakizunak betetzen direla egiaztatzea.**
- (i) **Baldintzak betetzen diren egiaztatzeko eskubidea.** Bezeroak eta bere Afiliatuek Produktuaren erabilerari eta banaketari buruzko erregistroak gorde behar dituzte. Microsoft-ek Produktuaren lizentzia-baldintzak betetzen diren edonoiz egiaztatzeko eskubidea du. Gainera, Microsoft-ek hautatutako auditore independenteek Bezeroari eskatutako diote zenbait informazioa emateko, hori egiaztatu ahal izateko; halaber, Produktua exekutatzeko duten sistemak eta Bezeroak ostatatutako, azpilizentzian emandako edo banatutako Produktuen lizentziak egokiak diren egiaztatuko dituzte.

Microsoft-ek ez badie hirugarrenei eskatzen lizentzien auditoretza egiteko, Bezeroak onartzen du Microsoft-en auditoretza prozesu automatikoa egitea.

- (ii) **Baldintzak ez betetzeagatik arazoek konponbideak.** Egiaztapenak edo auditoretza automatikoak Produktua lizentziarik gabe erabili dela antzematen badute, Bezeroak honako hau egin dezake 30 eguneko epean: (1) lizentzia egokiak eska ditzake edo, (2) lizentziarik gabeko erabilerak % 5a gainditzen badu, Microsoft-i egiaztapenaren gastuak ordaindu beharko dizkio eta lizentzia berriak erosi beharko ditu beren prezioari % 125a gehituta; prezioa kalkulatzeko da indarrean dagoen uneko prezioaren eta bezeroek ordaindutako prezioaren arabera. Lizentziarik gabeko erabileraren ehunekoa kalkulatzeko da erositako lizentzia kopurua eta instalatutako lizentziak konparatuta. Ez badago lizentziarik gabeko erabilerarik, Microsoft-ek ez du Bezeroaren erabilera berriro egiaztatuko urte betez, gutxienez. Lehen azaldutako eskubideak eta prozedurak kontuan hartuta, Microsoft-ek ez dio uko egiten hitzarmen hau betearazteko edo bere jabetza intelektuala babesteko eskubideei, legeak onartzen dituen beste ezein bitartekoren bidez.
- (iii) **Egiaztapenaren prozesua.** Bezeroak eta bere Afiliatuek erabiltzen edo banatzen dituzten Produktuen Lizentzia-baldintzen egiaztatzeke asmoa duenean, Microsoft-ek 30 egun baino lehen jakinaraziko dio Bezeroari. Horretarako, konfidentzialtasun akordio bati lotuta dagoen auditore independente bat kontratatuko du Microsoft-ek. Halaber, auditoretza automatikoan bildutako edozein informazio erabiliko da baldintzak betetzen diren egiaztatzeke xedearako soilik. Egiaztapena egingo da negozioaren lanorduetan eta ez ditu Bezeroaren eragiketarik edo lan-jarduerarik oztopatuko.

## 2. **Harpidetza, eskaerak.**

- a. **Saltzaile bat aukeratzea.** Bezeroak bere eskualdean baimendutako Saltzaile bat aukeratu eta mantendu behar du. Microsoft-ek edo Saltzaileak elkarrekin negozioak egiteari uzten badizkiote, Bezeroak ordezkari Saltzaile bat bilatu beharko du edo Microsoft-ek berak hornitutako harpidetza bat eskuratu beharko du; Bezeroak azken hau egitea erabakitzen badu, baliteke baldintza desberdinak onartu behar izatea.
- b. **Erabilgarri dauden Harpidetza-eskaintzak.** Bezeroaren Saltzaileak erabilgarri dauden harpidetza-eskaintzak hornitzen ditu, eta banaka edo hurrengoetako konbinazio bat gisa sailkatzen dira:
  - (i) **Lineako zerbitzuen konpromiso-eskaintza.** Bezeroak alde aurretik konpromisoa hartzen du Epe jakin batean erabiliko duen Lineako zerbitzuen kantitate jakin bat erosteko eta aurrez edo aldi behin ordaintzeko, zerbitzua erabili aurretik.
  - (ii) **Kontsumo-eskaintzak (honela ere esaten zaie: Ordaindu erabili ahala).** Bezeroak erabilera erreala oinarri hartuta kalkulaturako zenbatekoa ordaintzen du, aurrez ordaintzeko konpromisorik gabe.
  - (iii) **Eskaintza mugatuak.** Bezeroak epe mugatu batean Lineako zerbitzuen kantitate mugatu bat doan jasotzen du (adibidez, doako proba bat) edo Microsoft-eko beste eskaintza baten parte gisa (adibidez, MSDN) jasotzen du produktua. Hitzarmen honetan adierazitako xedapenak ez dira aplikatuko lotutako SLA kontratuei eta datuen atxikitzeari.
  - (iv) **Softwarearen konpromiso-eskaintzak.** Bezeroak alde aurretik konpromisoa hartzen du Epe jakin batean erabiliko duen Softwarearen kantitate jakin bat erosteko eta aurrez edo aldi behin ordaintzeko, Softwarea erabili aurretik.
- c. **Eskaerak.**
  - (i) Eskaerak Bezeroak izendatutako saltzailearen bidez egin behar dira. Bezeroak eskaerak egin ahalko ditu hitzarmen honen harira dituen afiliatuentzat, eta administrazio-eskubideak eman ahalko dizkie, haien Harpidetza kudea dezaten; halere, afiliatuek

ezingo dute eskaerarik egin hitzarmen honen harira. Halaber, Bezeroak bermatzen diren eskubideak esleitu ahalko dio hirugarren bati (1.a eta 1.b sekzioen arabera), Bezeroaren barne-negozioan horiek kontuan har ditzan. Bezeroak Afiliatuei edo hirugarrenei eskubideak ematen badizkie Softwareari edo Bezeroaren Harpidetzari dagokionez, hitzarmen honi lotuta geratuko dira eta, halaber, Bezeroak onartzen du afiliatu edo hirugarren horiek produktuak erabiltzean egiten dutenaren erantzulea izango dela.

- (ii) Bezeroaren Saltzaileak ahalbidetuko dio Harpidetza baten Epean zehar eskatutako Lineako zerbitzuen kantitatea aldatzea. Harpidetzaren Epea amaitutakoan gehitutako Lineako zerbitzuen kantitateak iraungiko dira.
- d. **Prezioak eta ordainketa.** Produktu bakoitzeko prezioak eta fakturazioaren eta ordainketaren zehaztapenak eta baldintzak Bezeroaren Saltzaileak ezarriko ditu.
- e. **Berriztapena.**
  - (i) Harpidetza berritzean, baliteke hitzarmen berri bat edo hitzarmen gehigarri bat sinatu behar izatea, edo hitzarmena aldatu behar izatea.
  - (ii) Bezeroaren Harpidetza automatikoki berrituko da Saltzailearentzat Harpidetzaren Epea amaitu aurretik, kontrakoa esan ezean.
- f. **Irakaskuntzako, gobernuko eta irabazi-asmorik gabeko bertsioetarako hautagarritasuna.** Bezeroak irakaskuntzako, gobernuko edo irabazi-asmorik gabeko bertsioa erosten badu, onartzen du hurrengo gunetan zerrendatzen diren hautagarritasun-baldintzak betetzen dituela:
  - (i) Irakaskuntzako bertsioetarako, irakaskuntza-erakundeek (barnean hartzen dira administrazioko bulegoak, hezkuntza-batzordeak, liburutegi publikoak eta museo publikoak) bete beharreko baldintzak helbide honetan daude: <http://go.microsoft.com/academic>;
  - (ii) Gobernuko bertsioetarako, bete beharreko baldintzak hemen daude: <http://go.microsoft.com/government>; eta
  - (iii) Irabazi-asmorik gabeko bertsioetarako, bete beharreko baldintzak hemen daude: <http://go.microsoft.com/nonprofit>.

Microsoft-ek beretzat gordetzen du hautagarritasuna nahi duenean egiaztatzeko eskubidea eta, hautagarritasun-baldintzak betetzen ez badira, Lineako zerbitzua eteteko eskubidea.

- g. **Zergak.** Alderdiek ez dute erantzukizunik izango beste alderdiak legez ordaindu behar dituen zergengatik. Hitzarmenaren transakzioengatik sortutako edo gehitutako zerga hauek legez ordaindu behar dituen alderdiaren ardura finantziala izango dira.

### 3. **Epea eta akabera.**

- a. **Hitzarmenaren epea eta akabera.** Bezeroaren Hitzarmen hau indarrean jarraituko da Harpidetza iraungi edo akabatu arte; lehendabizi betetzen dena. Bezeroak hitzarmena nahi duenean akaba dezake, bere Saltzailearekin harremanetan jarrita. Hitzarmen honen iraungitzeak edo akabatzeak hitzarmen honi loturiko Produktu gehiago eskatzeko eskubidea akabatzen du, ez besterik.
- b. **Urratzeagatik akabera.** Alderdi batek hitzarmena urratzen badu, beste alderdiak urratutako hitzarmena akaba dezake (hitzarmen osoa edo honen zati bat, egindako eskaerak barnean hartuta) idatziz jakinarazten badio. Hitzarmena 30 egunetan konponezina ez bada, hori

akabatzen duen alderdiak beste alderdiari 30 eguneko epea eman behar dio gauzak konpontzeko.

- c. **Harpidetza bertan behera uztea.** Harpidetza bertan behera uzteko zehaztapenak eta baldintzak Bezeroaren Saltzaileak ezarriko ditu.

#### **4. Segurtasuna, pribatutasuna eta datu-babesa.**

- a. **Saltzailearen administratzaile-sarbidea eta Bezeroen datuak.** Bezeroak onartzen eta adosten du: (i) bere Saltzailea aukeratzen duenetik eta Epea amaitu arte, Saltzailea Lineako zerbitzuetako administratzaile nagusia izango dela eta administratzaile-pribilegioak eta Bezero-datueterako sarbidea edukiko dituela; hala ere, Bezeroak Saltzaileari administratzaile-pribilegio gehigarriak eska diezazkiokeela; (ii) Bezeroak, bere erabaki baten ondorioz eta Epea indarrean dagoen bitartean, Saltzailearen administratzaile-pribilegioak ezeztatu ditzakeela; (iii) Saltzailearen pribatutasun praktikak, Bezero-datuak erabiltzean edo saltzaileak edozein zerbitzua hornitzean, Bezeroak bere Saltzailearekin dituen baldintzen mende egongo direla eta Microsoft-eko pribatutasun praktiken desberdinak izan daitezkeela; eta (iv) Saltzaileak bezeroen datuak (datu pertsonalak barne) bil, erabil, transferi, bistara eta prozesa ditzakeela. Microsoft-ek Bezeroak emandako informazioa eta Bezero-datuak Saltzaileari ematea onartzen du Bezeroak, datu horiek ordenatzeko, kudeatzeko eta Lineako zerbitzuak administratzeko.
- b. Hitzarmen honetako gai nagusia emateko, Bezeroak Microsoft-i eta bere agenteei baimena ematen die bere informazio pertsonala prozesa dezaten. Halaber, hitzarmen honen arabera, Bezeroak Microsoft-i hirugarrenen informazio pertsonala eman diezaiolke (kontaktuak, saltzaileak, banatzaileak, administratzaileak eta langileak barne). Microsoft-i hirugarrenen informazio pertsonala eman aurretik, Bezeroak hirugarren horien baimena derrigorrean behar du, eta pribatutasunaren eta datuak babestearen inguruko lege guztiak bete behar ditu.
- c. Lineako zerbitzuen zehaztapenetan pribatutasunari eta segurtasunari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu. Lineako zerbitzuen zehaztapenetan hartutako konpromisoak hitzarmen honen bitartez erositako Lineako zerbitzuei bakarrik aplikatzen zaizkie. Saltzaileak hornitzen dituen bestelako zerbitzuei edo produktuei ez zaizkie aplikatuko. Bezeroak Saltzaile batek hornitutako softwarea edo zerbitzuak erabiltzen baditu, erabilera hori Saltzailearen pribatutasun-jardunbideen mende egongo da eta baliteke Microsoft-en jardunbideak desberdinak izatea.
- d. Legeak agintzen duen heinean, Bezeroak erabiltzaileei jakinarazi behar die (eta beren baimena ere lortu behar du) Lineako zerbitzuak erabiliz gero beren datuak partekatuko direla lege betearazleekin eta gobernu-erakundeekin, Saltzaileak edo legeak hala eskatuz gero.
- e. Bezeroak Saltzailea izendatzen du bere izenean Microsoft-i jarraibideak emateko eta elkarri eragiteko, 4. sekzioan agertzen diren helburuen arabera.

#### **5. Bermeak.**

##### **a. Berme mugatua.**

- (i) **Softwarea.** Microsoft-ek urtebetez bermatzen du (Bezeroak bertsio horren lizentzia lehen aldiz erosten duen datatik hasita) Softwarearen bertsio bakoitzak Produktu aplikagarriari azaldu bezala funtzionatuko duela. Horrela ez bada eta Bezeroak Microsoft-ekin harremanetan jartzen bada bermearen epealdiaren zehar, Microsoft-ek (1) Bezeroak softwarearen truke ordaindu duen dirua itzuliko dio edo (2) softwarea konpondu edo ordezkatzeko dio.

- (ii) **Lineako zerbitzuak.** Microsoft-ek bermatzen du Lineako zerbitzu guztiek SLA akordioaren zehaztapenak beteko dituztela Bezeroak zerbitzua erabiltzen duen bitartean. Bezeroak berme hau urratzeagatik izan ditzakeen konpentsazio bakarrak SLA akordioakoak izango dira.

Lehen azaldutako soluzioak Bezeroari soilik aplikatzen zaizkio sekzio honetan aipatutako bermeak urratzeagatik. Ez da kontuan hartuko Bezeroak epealditik kanpo egindako bermeari buruzko erreklamaziorik.

- b. **Salbuespenak.** Hitzarmenaren bermek ez dituzte estaltzen istripuek, produktuaren gehiegizko erabilerak edota hitzarmena ez ikusi eginez produktuaren erabilerak eragindako arazoak, ezta sistemaren gutxienezko eskakizunak ez badira betetzen ere. Berme horiek ez zaizkie aplikatuko produktuen doako probei edo doako produktuei, Aurrebistei, Eskaintza mugatuei edo Bezeroak bana ditzakeen Produktuaren osagaiei.
- c. **Ezeztapena.** Lehen aipatutako berme mugatu horretaz aparte, Microsoft-ek ez du beste bermerik edo eskubiderik (izan berariazko, inplizitu, legebidezko nahiz bestelakoak) emango Produktuetarako edo ezeztapenetarako; halaber, ez ditu kontuan hartuko kalitateari, tituluari, arauak ez-hausteari, merkaturatze-ahalmenari eta xede jakin baterako gokitasunari dagozkion bermeak.

## 6. *Hirugarrenen erreklamazioen defentsa.*

Klausula honetan aipatutako hirugarrenen erreklamazioak direla kausa, alderdiek elkarren artean defendatuko dira eta, kontrako epaiketa batean (edo ados dagoen epai batean), gastuen zenbatekoa ordainduko dute, baldin eta alderdi defentsariari idatziz jakinarazten bazaio ahal bezain laster eta bere defentsa eta edozein akordioa kudeatzeko aukera badu. Defendatuko den alderdiak alderdi defentsariari eman beharko dizkio ahal duen laguntza, informazio eta baimen guztiak. Defendatutako alderdiak alderdi defentsariari eskainitako laguntza honengatik izandako zentzuzko gastuen dirua itzuliko dio. Sekzio honek alderdien erreklamazioak konpontzeko erabilitako soluzio bakarrak eta ardura osoa azaltzen du.

- a. **Microsoft-ek defendatutakoa.** Microsoft-ek Bezeroa defendatuko du hirugarrenek egindako erreklamazioen aurrean, horietan salatzen badute beren salerosketa-sekretuak, patenteak, copyrighta, marka erregistratuak edo jabetza-eskubideak urratzen direla Produktua edo Konponketa erabiltzeagatik; kontuan hartu behar da kuota batean eta hitzarmen honetan bermatzen den lizentzia batean oinarritutako Microsoft produktuak direla (gainera, Microsoft-ek hornitutako inprimakiaren arabera, produktu horiek ezin dira aldatu edo konbinatu). Microsoft-ek ezin baditu urratze-erreklamazio horiek ebatzi komertzialki egokiak diren soluzioak proposatuz, hurrengo hau har daiteke soluzio gisa: (1) Produktua edo konponketa aldatu edo ordeztu egokia den baliokide funtzional batekin edo (2) amaitu Bezeroaren lizentzia eta aurrez ordaindutako betiko lizentzien eta Lineako zerbitzuak epe zehatz batean erabiltzeagatik ordaindu den dirua itzuli (azken bost urteko balio-galera kontuan hartuta). Hirugarrenen erreklamazioa jaso ostean, Bezeroak Produktua edo konponketa erabiltzen jarraitzen badu nahiz eta erabilera gelditzeko jakinarazpen bat jaso, Microsoft-ek ez da erantzule izango sortutako erreklamazioengatik edo kalteengatik.
- b. **Bezeroak defendatutakoa.** Legeak baimendutako heinean, Bezeroak Microsoft defendatuko du hirugarrenek egindako erreklamazioen aurrean, honako hau salatzen badute: (1) Bezeroaren izenean Microsoft-ek ostatatutako Lineako zerbitzu bateko Bezero-datuak edo Microsoft-ekoa ez den softwareak hirugarrenen salerosketa-sekretuak, patenteak, copyrighta, marka erregistratuak edo jabetza-eskubideak urratzen dituztela; edo (2) Bezeroak edozein Produktua edo Konponketa erabiltzean legea urratzen dela edo hirugarren horri kalte egiten diola.

## 7. *Erantzukizunaren muga.*

Produktu bakoitzaren arabera, hitzarmen honetako alderdien erreklamazio guztien erantzukizun osoa kalte zuzenetara mugatzen da Bezeroak erantzukizun hori sortu zuen hitzarmen honetako Produktuaren truke ordaindu zuen zenbatekoraino.

- a. **Lineako zerbitzuak.** Lineako zerbitzuen kasuan, Microsoft-ek Bezeroak egindako erreklamazioen gaineko duen erantzukizuna mugatuko da Bezeroak Lineako zerbitzuaren truke 12 hilabeteetan ordaindutako zenbatekoraino; Harpidetzaren barruan Lineako zerbitzuarengatik ordaindutako zenbateko hau gainditzen bada, Microsoft-ek ez da inolaz ere erantzule izango.
- b. **Doako produktuak eta kode banagarria.** Doako produktuen eta kodearen kasuan, Bezeroak hirugarrenei banatzeko baimena du Microsoft-i ezer ordaindu behar gabe; Microsoft-en erantzukizuna zenbateko honaino mugatzen da: Ameriketako Estatu Batuetako bost mila dolar (5.000,00 USD).
- c. **Salbuespenak.** Ezein alderdik ez du erantzukizunik izango galdutako mozkinengatik edo aparteko, zeharkako, istripuzko, ondoriozko, zigorrozko edo ereduuzko kalte-ordainengatik, erabilera galeragatik, galdutako irabazkinen, etekinen, etenaldi komertzialen ondoriozko kalteengatik edo informazio komertzialaren galerarengatik, nahiz eta alderdiak jakin gerta edo aurreikusi zitezkeela.
- d. **Salbuespenak.** Atal honetako erantzukizunaren mugak aplikatzen dira lege aplikagarriak onartzen duen heinean, baina ez zaizkie aplikatzen: (1) 6. atalaren arabera alderdiek dituzten betebeharrak edo (2) bestearen jabetza intelektualeko eskubideen urraketak.

## **8. Laguntza-zerbitzua eta zerbitzu profesionalak.**

Bezeroaren Saltzaileak hitzarmen honetako Produktuen laguntza-zerbitzuei buruzko xehetasun guztiak eskainiko ditu. Saltzaileak edo bere ordezkariak (zenbait kasutan Microsoft izan daiteke ordezkari hori) horni ditzake laguntza-zerbitzuak. Bezeroak Zerbitzu profesionalak kontratatzen baditu hitzarmen honen arabera, Zerbitzu profesional horiek Erabiltzeko eskubideetan zehaztutako zehaztapenen eta baldintzen mende egongo dira.

## **9. Beste hainbat kontu.**

- a. **Oharrak.** Jakinarazpenak posta elektronikoz eta hartu-agiriarekin bidali behar dituzu beheko helbidera.

### **Oharrak bidaltzeko:**

Microsoft Ireland Operations Limited  
South County Business Park  
Leopardstown  
Dublin 18

Baimena ematen diguzu jakinarazpen elektronikoak bidaltzeko Harpidetzan zehaztutako kontu-administratzaileen helbideetara. Oharrak irakurritzat joko dira hartu-agiriaren egunean, edo, mezu elektronikoaren kasuan, bidaltzen diren egunean. Harpidetzan zehaztu dituzun kontu-administratzaileen helbideak zuzenak direla eta eguneratuta daudela bermatzeko

arduradun bakarra zara. Helbide elektroniko horretara bidaltzen ditugun jakinarazpen guztiak indarrean sartuko dira bidaltzen diren unean, mezu elektronikoa jasotzen baduzu zein ez.

- b. Esleipena.** Hitzarmen hau ez esleitzeko aukera duzu, dela osorik dela parte batean. Baliteke Microsoft-ek hitzarmen hori jakinarazpenik gabe transferitzea, baina Microsoft-eko afiliatuek soilik jasoko dute. Edozein debekatutako esleipena baliogabea izango da.
- c. Bereizgarritasuna.** Hitzarmen honen parteren bat ezin bada betearazi, gainerakoak oraindik ere izango du indar eta eragin osoa.
- d. Ezespena.** Hitzarmen honetan betearazten ez diren xedapenak ez dira ezespentzat hartuko.
- e. Agentziarik ez.** Hitzarmen honek ez du agentziarik, partzuegorik edo enpresa konbinaturik sortzen.
- f. Hirugarren onuradunik ez.** Hitzarmen honek ez du hirugarren onuradunik.
- g. Kontratatzaileen erabilera.** Microsoft-ek kontratatzaileak erabil ditzake zerbitzuak hornitzeko, baina beren errendimenduaren erantzule izango da, hitzarmen honetan adostutako zehaztapenen arabera.
- h. Microsoft kontratatzaile independente gisa.** Alderdiak kontratatzaile independenteak dira. Bezeroak zein Microsoft-ek banakako produktuak gara ditzakete beste alderdiaren informazio konfidentziala erabili behar gabe.
- i. Eskusiboa ez den hitzarmena.** Bezeroak Microsoft-enak ez diren beste produktu eta zerbitzuak erabil eta susta ditzake, baita lizentzia kontratuetan sartu ere.
- j. Lege eta eskumen aplikagarriak.** Hitzarmen hau Irlandako legeek arautzen dute. Microsoft-ek hitzarmen hau betearazteko ekintzarik gauzaten badu, Bezeroaren egoitza dagoen jurisdikziora eraman beharko du. Bezeroak hitzarmen hau betearazteko neurriak hartzen baditu, ordea, Irlandara bideratuko ditu hartutako neurri horiek. Jurisdikzio banaketa hori gorabehera, alderdi bakoitzak berari dagokion jurisdikzioan erresalzubuko neurriak eskatu ahaliko ditu jabetza intelektualaren eskubideen urraketatatik.
- k. Hitzarmen osoa.** Hitzarmen hau da bertan jasotako gaiei dagokien hitzarmen osoa eta lehengo edo oraingo beste komunikazio guztiak ordeztzen ditu. Hitzarmen honetan agertzen diren dokumentuen arteko gatazkarik badago eta berariaz konponbidea agertzen ez bada, dokumentuen zehaztapenak ordena honetan gailenduko dira: (1) hitzarmen hau (2) Produktuaren baldintzak, (3) Lineako zerbitzuen baldintzak eta (4) hitzarmen honetako gainerako dokumentuak.
- l. Ondoko baliozkotasuna.** Azaldutakoa indarrean jarraituko du hitzarmena iraungi ondoren ere, hitzarmena indarrean dagoen bitartean aplikagarriak izango diren baldintzak izan ezik.
- m. AEBetako esportazio-legeak.** Produktuak AEBetako esportazio-legeen mende daude. Bezeroak Microsoft-eko produktuei, zerbitzuei eta teknologiei aplikatu dakizkiokeen lege eta araudi nazional zein nazioarteko guztiak bete behar ditu; besteak beste, AEBetako "Export Administration Regulations" arauak, "International Traffic in Arms Regulations" arauak eta AEBetako edo beste herrialde bateko gobernuak ezarritako azken-erabiltzaileentzako mugak eta helburuetarako mugak.
- n. Ezinbestekotasuna.** Alderdiek ez dute erantzukizunik izango gertatzen diren funtzionamendu-akatsengatik, baldin eta alderdiaren ganorazko kontrolatik at dauden kausen ondorio badira (hala nola sutea, leherketa, elektrizitate-itzalaldia, lurrikara, uholdea, ekaitz gogorrak, greba, enbargoa, lan-gatazkak, aginte zibil edo militarren ekintzak, gerra, terrorismoa –ziberterrorismoa barne–, ustekabeko istripuak, Interneteko trafiko-operadoreen ekintza eta omisioak, gobernu-erakundeen edo erakunde araugileen ekintza eta omisioak (barne harturik lineako zerbitzuetan eragina duten lege edo arau berriak edo gobernuen



bestelako ekintzak)). Edonola ere, Sekzio hau ez zaie aplikatuko hitzarmen honen harira egin behar dituzun ordainketei.

- o. Agintaritza kontratatzailea.** Zehaztapen hauek erakunde baten izenean onartzen ari den banakoa bazara, ziurtatzen duzu legezko aginpidea duzula hitzarmen honetan erakunde horren izenean parte hartzeko.
- p. Lineako erosketak baliogabetzeko eskubideari uko egitea.** Lege aplikagarriak onartzen duen heinean, Bezeroak hitzarmen honen arabera salerosketak saihesteko bere eskubideak salbuesten ditu, urruneko salmenta, online hitzarmen edo hitzarmen elektronikoak, edota aurreko informazioari buruzko edozein eskubide edo betebeharrak, ondoriozko baieztapena, eskubide edo atzerapen, edo hozte momentuetan.

## 10. Definizioak.

Hitzarmen honetan “eguna” hitza aipatzen bada, hori egutegiko eguna izango da.

“Erabilera egokiaren politika” Lineako zerbitzuen zehaztapenetan jasotzen da.

“Afiliatua” da alderdi baten jabetzakoa den, alderdi baten jabe den edo alderdi batekin batera jabetza komuna duen edozein erakunde legal. “Jabetza” da, definizio honetara mugaturik, erakunde baten interesen % 50 baino gehiagoren gaineko kontrola.

“Kontsumo-eskaintzak”, “Eskaintza konbinatuak” edo “Eskaintza mugatuak” atalek Harpidetza-eskaintzen kategoriak zehazten dituzte eta 2. Sekzioan zehaztuta daude.

“Bezero-datuak” Lineako zerbitzuetako baldintzetan zehaztuta daude.

“Azken erabilzailea” da Lineako zerbitzuen ostaturiko Bezero-datuak atzitzeko edo Lineako zerbitzuak erabiltzeko zure baimena duen edozein pertona.

“Konponketa” da Produktuan egindako konponketak, hobespenak eta antzeko aldaketak; Microsoft-ek horiek argitaratzen ditu (hala nola, Produktuaren zerbitzu-paketeak) edo Bezeroari zuzenean bidaltzen dio aldaketa hori arazo zehatz bat konpondu ahal izateko.

“Lizentziadun gunea” da <http://www.microsoft.com/licensing/contracts> helbidea edo oinordeko gune bat.

“Microsoft-ena ez den Produktua” Lineako zerbitzuetako baldintzetan zehaztuta dago.

“Lineako zerbitzuak” dira hitzarmen honen harira Bezeroak harpidetzaz hartutako Microsoft-ek ostaturiko edozein lineako zerbitzua, Microsoft Dynamics Online zerbitzuak, Office 365 zerbitzuak, Microsoft Azure zerbitzuak edo Microsoft Intune Online zerbitzuak barne.

“Lineako zerbitzuen baldintzak” dira Bezeroari aplikatzen zaizkion baldintza gehigarriak Lizentziadun gunean argitaratzen eta noizbehinka eguneratzen diren Lineako zerbitzuak erabiltzeagatik.

“Aurrebistak” Microsoft-ek eskaintzen dituen Lineako zerbitzuen edo Softwarearen aurrebista, beta edo beste argitaratu aurreko bertsioak edo eginbideak dira, bezeroen oharrak jasotzeko.

“Produktua” da Produktu-baldintzetan agertzen diren produktu guztiak; besteak beste, Softwarea, Lineako zerbitzuak eta Interneten oinarritutako antzeko zerbitzuak (Aurrebistak barne).

“Produktu-baldintzak” da askorentzako lizentzia ematean erabilgarri dagoen Microsoft Produktuei eta Zerbitzu profesionali buruzko informazioa ematen duen dokumentua. Produktu-baldintzei buruzko dokumentua argitaratzen da Lizentziadun gunean eta aldizka eguneratzen da.

“Zerbitzu profesionalak” dira hitzarmen honen harira Bezeroari hornitutako Produktuaren laguntza-zerbitzuak eta Microsoft-en aholkularitza-zerbitzuak. “Zerbitzu profesionalak” ez dituzte barnean hartzen Lineako zerbitzuak.

“Saltzailea” Microsoft-ek programa honen bidez Software lizentziak eta Lineako zerbitzuak saltzeko baimendutako erakundea da, eta Harpidetzarekin laguntza eskainiko dizuna.

“SLA” da zerbitzu-mailako akordioa; honek Lineako zerbitzuen gutxienezko zerbitzu-maila zehazten du eta Lizentziadun gunean argitaratzen da.

“Softwarea” dira Produktu-baldintzetan zehazten diren eta lizentzia duten Microsoft softwarearen kopiak. Softwareak ez ditu barnean hartzen Lineako zerbitzuak, baina Software hori Lineako zerbitzu baten parte izan daiteke.

“Harpidetza” Lineako zerbitzuetan izena ematea da Epe jakin baterako Saltzaileak zehaztutakoaren arabera.

“Epea” Harpidetzaren iraupena da (adibidez, 30 egun edo 12 hilabete).

“Erabilera-eskubideak” dira Lizentziadun gunean argitaratutako Produktu bakoitzaren erabilera-eskubideak edo -baldintzak; aldizka eguneratzen dira. Erabilera-eskubideek Produktuarekin batera datozen azken erabiltzaileen lizentzia-hitzarmenaren baldintzak ordezkatzen dituzte. Softwarearen erabilera-eskubideak Microsoft-ek argitaratzen ditu Produktu-baldintzetan. Lineako zerbitzuen erabilera-eskubideak argitaratzen dira Lineako zerbitzuen baldintzetan.

